

# KANALAK

Gure bezeroekin komunikatzeko kanal hauek erabiliko ditugu:

- Gure hostela ezagutarazteko hasieran triptiko informatibo batzuk egingo ditugu inguruko turismo bulegoetan emateko. Bilboko eta Donostiako turismo bulegoetan ere banatuko ditugu.
- Gure bezero potentzialengana heltzeko, internet bidezko komunikazioa erabiliko dugu: webgune propio indartsu bat egingo dugu eta sare sozial guztietan agertuko gara (facebook, twitter, instagram).
- Turismoko portal guztietan presentzia edukiko dugu; Edreams, booking eta horrelako bilatzaileetan alta emango gara.
- Egonaldira etorri aurretik gure komunikazioa e-mail, telefono edo web orriaren bidez izan daiteke. Erreserbak era ezberdinetan egin bait daitezke.
- Bezeroak beraien esperientzian oinarrituta ahoz-ahoko informazioa zabaltzea espero dugu.